

DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDI PUBLIKOA, UDALAREN ESKU-HARTZEA OSATZEN EDO/ETA ORDEZTEN DUTEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK SUSTATZEKO ETA GARATZEKO GIZARTE- ETA KULTURA-, JAI- ETA AISIALDI- ESPARRUETAN

Esp.: 2025-03659

LEHENENGO OINARRIA. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Sestaoko Udalaren dirulaguntzen udal-ordenantza, 2006ko ekainaren 6ko 107 zenbakidun BAOn argitaratua.

BIGARREN OINARRIA. HELBURUA

Dirulaguntzen deialdi honen helburua da Sestaoko Udalaren esku-hartzea osatzen edo ordeztzen duten programak eta jarduerak sustatzea eta garatzea gizarte- eta kultura-, jai- eta aisialdi- esparruetan.

Dirulaguntza ekonomikoen bidez, Sestaoko Udalak lankidetzan jardun nahi du Sestao udalerriaren interes orokorrak gauzatzen laguntzen duten irabazi-asmorik gabeko ekimenekin.

Deialdi honen helburua diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzen dituzten entitateei laguntza ekonomikoa ematea da soilik; beraz, xedea ez da jarduerak egiteko udal-lokalak lagatzea.

HIRUGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZAREN XEDEA

1. Dirulaguntzen deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea gizarte- eta kultura-, jai- eta aisialdi-esparruetako programak eta jarduerak garatzeko.
2. Proposatutako programak edo jarduerak irabazi-asmorik gabe egin beharko dira, garapen-esparrua Sestaoko udalerria izango da edo, bestela, onuradunek Sestaoko udalerrian erroldatutako pertsonak izan beharko dute. Gainera, 2025eko ekitaldian garatu beharko dira.
3. Proposatutako jarduerak dirulaguntza jasotzeko hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:
 - a. Oinarri hauteko Bigarren Baldintzan aurreikusitako jardueraren batekin bat etortzea.
 - b. Udalerriko interes publikoa lortzeko lagungarri izatea, Sestaoko Udalak esparru horietan duen esku-hartzea osatu edo ordezkatzegatik.
 - c. Jarduera teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izatea.

Eskatzaileak deialditik kanpo geratuko dira, baldin eta beren estatutu edo jardueretan lelo, esaldi edo edukiak badituzte, kontrakotasuna adierazten dutenak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, adeitasunarekin, berdinen arteko bizikidetzarekin, Euskal Herriarekin edo deialdi honetan eta Sestaoko Udaleko Kultura Atalean lortu nahi diren helburu eta xedeekin. Ez zaio, zuzenean edo zeharka, inolako dirulaguntzarik edo baliabide edo funts publikorik emango LGTBIfobia jorratzen, bultzatzen edo sustatzen duen ezelako pertsona fisiko edo juridikori, ez eta edonolako erakunde publiko, pribatu edo finantzaketa mistokoei eta konbertsio-terapiak sustatzen edo egiten dituztenei ere. Kanpoan uzteak berekin ekarriko du dirulaguntzaren xede diren jarduerak puntuaziorik ez izatea eta prozesutik kanporatzea.

4. Ondoren zehazten diren programek eta jarduerak diru-laguntzak jaso ditzakete honako eremuetan:
 - a) Jarduera eszenikoak: antzerki eta dantza garaikideak
 - b) Musika-jarduerak
 - c) Ikus-entzunezko jarduerak eta arte plastikoak
 - d) Edizio- eta argitalpen-jarduerak.
 - e) Ondarearekin, folklorearekin eta artisautzarekin zerikusia duten jarduerak

- f) Sestaoko udalerriko industria- eta langile-ondareari, ondare material zein ez-materialari lotutako edukiak ikertu eta zabaltzen dituzten jarduerak eta programak.
 - g) Eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduera kulturalak
 - h) Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jarduerak, eskaut- edo aisialdi-elkarteek antolatuak.
 - i) Auzoetako jaiak.
 - j) Bestelako kultur jarduerak
5. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zailentzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, eta diruz lagundu daitezkeen gastuen kostua ezin izango da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izan.
- 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) benetan egindako gastuak bakarrik onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat, baldin eta dirulaguntzaren eskatzailearen izenean egindako fakturekin egiaztatutako transakzio ekonomikoa badira. Ez dira onartuko, beraz, beste batzuek zuzenean ordaindukoak.
- Udalerriko elkarteek egin beharreko modernizazioa errazteko, ziurtagiri elektronikoak emateko eta berritzeko gastuak ere diruz lagunduko dira.
6. Diruz lagundu ezin diren gastuak:
- a) Dirulaguntza jaso duen erakunde onuradunaren langileen ordainsariei eta gizarte-segurantzari dagozkion gastuak.
 - b) Elkarteko zuzendaritzako kideek emandako lanbide-prestazioengatik igorritako fakturak.
 - c) Ondasun higiezinak erosteari dagozkionak
 - d) Sestaoko Udalaren iritziz, diruz lagunduko den jarduera kontuan hartuta, ezohiko kostua duten altzariak edo ekipamendu teknikoak erostea, eta, nolanahi ere, altzari edo ekipamendu horiek erosteko dirulaguntza emango balitz, diruz lagundutako jarduera amaitzean, Sestaoko Udalaren jabetzakoak izango dira.
 - e) Protokolo-gastuak: bazkariak, afariak, opariak, etab.
 - f) Txangoak
 - g) Ikasturte-amaierako jaiak. Salbuespen izango dira jai horien inguruan antolatutako jarduerak, baldin eta, argi eta garbi, ezaugarri pedagogikoak eta kultura- eta hezkuntza-izaera badituzte.
 - h) Mantenu-fakturak, diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatzeko joan-etorrietarako ostatu-gastuen kasuan.
 - i) Turismo, aisialdi edo bestelako jardueren ondoriozko fakturek, dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zuzeneko harremanik ez badute.
7. Zenbait muga aintzat hartuta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuak:
- a) Lokalak egokitzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak.
Udalerrian lokal propioak dituzten erakundeek soilik aurkeztu ahal izango dituzte lokal horiek egokitzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko gastuen egiaztapenak, bai eta sortutako horniduren kontsumoak ere (ura, argia, berokuntza, telefonoa...). Kontzeptu horretarako emandako dirulaguntzak edo egiturazko gastutzat hartzen denak ez du inola ere gaindituko erakunde elkartuari emandako zenbateko ekonomikoko osoaren % 20.
 - b) Auzoko jaietako herri-bazkarietarako gastuak.
Kontzeptu horretarako emandako dirulaguntzak ez du inola ere gaindituko Erakunde Elkartuari emandako zenbateko ekonomikoko osoaren % 20.
 - c) Azpikontratazio-gastuak.
Diruz lagundutako jarduerak egiteko azpikontratazio-gastuak honela onartuko dira:
 - Pertsona edo erakunde onuradunak azpikontratatu egin duela ulertuko da hirugarren batzuekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partzialki gauzatzea.

- Kontratazioa hirugarren pertsona autonomo bati egiten bazaio, aurkeztutako fakturan dagokion PFEZ atxikipena egin beharko da, indarrean dagoen eta aplikatzekoa den araudiaren arabera.
- Kasu horretan dauden eta PFEZren atxikipena ez duten fakturak ez dira dirulaguntza jasotzeko justifikaziotzat hartuko, eta, hala badagokio, emandako diru guztia itzultzeko eskatu ahal izango da.
- Ez da azpikontrataziotzat hartuko pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuak kontratatzea.

LAUGARREN OINARRIA ONURADUNAK ETA BALDINTZAK.

Deialdi honetan araututako diru-laguntzen onuradunak izan daitezke irabazi-asmorik gabe diharduten pertsona fisikoak eta irabazi-asmorik ez duten pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, eta ondasun-komunitateak edo beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, helbidea Sestaoko udalerrian badute eta deialdi honetan adierazten diren proiektuak edo jarduerak egiten badituzte. Gainera, honako baldintzak bete behar dira:

- a) Pertsona fisikoak Sestaoko Udalerrian erroldatuak egongo dira gutxienez diru-laguntzen deialdia argitaratu eta urtebete lehenago.
- b) Pertsona juridikoak legez osatuak egongo dira eta Elkarateak direnek, gainera, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Orokorrean edo Erregistro Bereziatan inskribatuak egon beharko dute, diru-laguntzen deialdia argitaratu baino urtebete lehenago gutxienez,
- c) Era berean, Sestaon egoitza duten elkar-erakundeak Erakunde Herritarren Udal Erregistroan inskribatuta egongo dira, xede horrez eratu baita.
- d) Pertsona juridikoen estatutuetan irabazi-asmorik ez dutela adierazi beharko da.
- e) Pertsona juridikoek sozietatearen helbidea eta helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan izango dute.
- f) Diru-laguntzak jasotzeko, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legea Orokorren 13. artikuluan xedatutako debekurik ez izatea.
- g) Sexu-bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta dirulaguntza edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortuta ez egotea Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.
- h) Sestaoko Udalak aldeztu aurretik emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatuak izatea. Ildo horri jarraiki, ez zaio diru-laguntzarik emango Udalaren aurreko diru-laguntza justifikatzeke duen pertsona edo erakundeari, justifikatzeko epea amaituta badago deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.
- i) Eskubide publikoko zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzaren betebeharrak eguneratuak izatea.
- j) Dirulaguntzen deialdi honetan ezin izango dute parte hartu Sestaoko Udalarekin zuzenean, deialdi honetan jasotako jarduerari dagokienetz, diru-laguntza jasotzeko hitzarmena sinatu duten elkar-teek.

BOSGARREN OINARRIA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA AURREKONTU-PARTIDA

Gizarte-, kultura-, jai- eta aisialdi-arloko programak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak honako kontu-sail honen kargura emango dira: 3340 programa, 48106 eta 48103 azpikontzeptuak. 2025eko aurrekontua onartzen ez den bitartean, luzatutako aurrekontua aplikatuko da, berrogeita hamar mila laurehun eta berrogeita hamahiru euro eta hirurogeita hamabi zentimoko (50.453,72) muga duena.

Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da dagokion ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egotea haren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko.

SEIGARREN OINARRIA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

1. Eskabideak aurkezteko epea 30 (hogeita hamar) egun naturalekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.
2. Epe baliodunaz kanpo aurkeztu diren eskaerak ezetsiko dira, bestelako izapiderik gabe, eta deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozeduraren ebazpenean hala adieraziko da.

ZAZPIGARREN OINARRIA ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA MODUA

1. Eskaera bat aurkeztu beharko da dirulaguntza eskatzen den programa edo jardura bakoitzeko. Eskabidean honako hauek adierazi beharko dira:

- a. Jardueraren deskribapena
- b. Lortu nahi diren helburuak
- c. Noiz eta non egingo diren
- d. Aurreikusitako diru-sarreraren eta gastuen balantzea

Azalpen-memoria aurkeztu ahal izango da, Bederatzigarren oinarrian adierazitako alderdi baloragarrien deskribapena egiteko:

- e. Proiektuaren interes kulturala
- f. Emaizten aurreikuspena
- g. Aurrekontuaren egokitasuna:
- h. Zeharkakotasunari dagozkion alderdiak

Baloratu daitezkeen alderdiei buruzko memoriarik ez sartzeak ez dakar deialditik kanpo geratzea, baina eragin dezake 0 puntu lortzea alderdi horiek betetzen direla egiaztatzen ez den ataletan.

2. Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak emateko, pertsona edo erakunde interesdunak eskaera egin beharko du alde aurretik, Sestaoko Udalak web-orrian argitaratutako izapidetaren arabera.
3. Oinarri hauetan definitutako dirulaguntzen onuradun izateko, interesdun orok egiaztatu beharko du bere nortasuna, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

4. Dirulaguntzaren eskatzailea pertsona fisikoa bada:

Pertsona fisikoek Sestaoko Udaleko Erregistro Elektronikoen edo Erregistro Orokorren bidez aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak. Dokumentuak eskuragarri egongo dira webgune honetan: www.sestao.eus, <https://www.sestao.eus/eu-ES/izapideak/>

5. Dirulaguntzaren eskatzailea pertsona juridikoa bada:

Pertsona juridikoek modu elektronikoa aurkeztu beharko dute eskabidea, nahitaez. Legezko ordezkariak aurkeztuko du, eta ordezkaritza hori egiaztatu beharko da zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez.

Ahalordea Sestaoko Udalaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatuta ez badago, interesdunak, dirulaguntza eskatzeko izapidea egin aurretik, ordezkaritza hori erregistratu beharko du. Erregistroko inskripzioa izapide honen bidez egingo da: «Ordezkaritza berria» . <https://www.sestao.eus/eu-ES/izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=59764ae1-0cbe-eb11-bf46-00237d32158c>. Erregistroa egin eta izapidetari alta eman ondoren, dirulaguntzaren eskaera aurkeztu ahal izango da.

Dena dela, interesdunak ahalordea aurretik erregistratua badu, dirulaguntzaren eskaera baino ez du aurkeztu beharko, eta udalak ofizioz egiaztatuko du aurretik emandako ahalordea.

6. Aurreko zenbakietan araututako eskaerak, interesdunak aurka egiten ez badu behintzat, zehaztuko du zer dokumentu tratatuko diren datuen bitartekaritza-plataformei, sare korporatiboetara edo

horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez, eta, beraz, Udalarentzat eskuragarri ez daudenak edo eskuraezinak direnak bakarrik aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Hala ere, Udalak edozein unetan interesdunari eskatu ahal izango dizkio datu-bitartekaritzako plataformei, sare korporatiboei edo gaitutako beste sistema elektroniko batzuei kontsulta eginez eskura daitezkeen dokumentuak, baldin eta irispide hori eragozten duten inguruabar teknikoak edo ezintasun materiala badaude.

7. Jarduerak Sestaoko udalerritik kanpo egin arren, udalerrian erroldatuak direnen alde egiten direnean, erakunde eskatzaileak jardueraren hartzaile-kopurua adierazi beharko du eta Sestaoko udalerrian erroldatuak dauden kopurua eta zerrenda nominala aurkeztu beharko da, Udalak dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzak 3.3. artikuluan aurrez ikusitakoa betetzen dela egiaztatzeko.
8. Eskabideak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak emateko Udal Erregelamenduan jasotako baldintza guztiak osorik eta berariaz onartzen direla.

BEDERATZIGARREN OINARRIA. EMATEKO PROZEDURA

1. Dirulaguntzak emateko prozedura lehiarik gabeko konkurrentzia da.
2. Aurkeztutako proposamenei gehienez ere 100 puntu emango zaizkie, honako irizpide eta puntuazio hauek aplikatuta:
 1. Proiektuaren interes kulturala (gehienez 50 puntu).

Honako hauek baloratuko dira: kalitatea eta interesa kulturaren eta/edo artearen ikuspegitik, izaera berritzailea, originaltasuna edo berezitasuna, formatu berrien esperimentazioa edo gutxi zabaldutako gaien tratamendua, udalerriko zenbait elkarte proposatutako jardueraren batean lankidetzan aritzea, bai eta, Ebaluazio Batzordearen iritziz, proiektuari interes kulturala ematen dioten beste alderdi batzuk ere..
 2. Programaren diseinua (gehienez 15 puntu).

Honako hauek baloratuko dira: espero diren emaitzak, emaitzak betetzeko eta ebaluatzeko adierazleak, teknologia berrien erabilera, eta Ebaluazio Batzordearen iritziz diseinu bereizia dakarten beste alderdi batzuk.
 3. Aurrekontuaren egokitasuna (gehienez 15 puntu).

Egindako finantza-ahalegina eta baliabideak esleitzeko efizientzia baloratuko dira.
 4. Zeharkakotasunari dagozkion alderdiei emandako tratamendua (gehienez 20 puntu).

Honako hauek baloratuko dira: jarduera erabat euskaraz egitea, programan genero-ikuspegia txertatzea, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista egitea (elkartearen antolaketa-egituraren % 40, gutxienez, emakumeak izatea), etorkinak proposatutako jardueretan integratzea eta biztanleria jardueretan desgaitasun funtzionala duten pertsonak integratzea.
3. Gutxienerako muga (40 puntu) gainditzen ez duten proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasoko. Lortutako puntuazioak zehaztuko du eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoari aplikatu beharreko ehunekoa, taula honetan adierazitakoaren arabera:

Programari emandako puntuak	Eman beharreko dirulaguntzaren %
90-100	%100
80-89	%90
70-79	%80
60-69	%70
50-59	%60
40-49	%50

4. Pertsona edo erakunde bati emango zaion gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu deialdiari esleitutako kreditu osoaren % 10
5. Salbuespen gisa, balorazioaren ehunekoa eta aurreko puntuan adierazitako muga aplikatu ondoren, ateratzen den guztizko zenbatekoa dirulaguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko globala baino handiagoa bada, hainbanaketa bat aplikatuko da, eta dirulaguntzaren onuradunen artean esleitutako zenbateko guztiak ehuneko berean murriztuko dira, harik eta zenbateko osoa dagoen aurrekontu-zuzkidurarekin estali arte.
6. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua, ez bakarka, ez beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen edozein motatako dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerekin batera. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertuta, gastuak baino diru-sarrera gehiago daudela ondorioztatzen bada, Sestaoko Udalak emandako dirulaguntzari gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio.

HAMARGARREN OINARRIA. IZAPIDEAK, EBAZPENA ETA ERREKURTSOAK.

1. Eskaerak Sestaoko Udaleko Kultura, Hezkuntza, Euskara eta Kirol Ataleko buruak izapidetuko ditu.
2. Eskabideak jasotzen direnean, Atal Buruak egiaztatuko du pertsona eskatzaileek deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dutela. Sestaoko Udalak emandako diru-laguntzak arautzeko Udal Ordenantzak 8. artikuluko 6. idatz-zatian aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio hori egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela. Era berean, eta aurkezten diren jarduerak eta proiektuak behar bezala baloratzeko, Atal Buruak behar adina argibide eskatu ahal izango dizkie pertsona edo erakunde eskatzaileei, eskabidea egiteko baldintzak hobeto ezagutzeko.
3. Balorazio Batzordeak proposamenak baloratu ondoren, Atal Buruak txostena egingo du behin-behineko ebazpen-proposamenarekin. Bertan azalduko dira deialdian parte hartu duten erakundeak, dirulaguntzarako aurkeztutako jarduerak edo proiektuak eta diruz laguntzeko baldintzak betetzen dituzten erakunde eta jarduerak, baita, bidezkoa bada, deialdiaren oinarriak eta ordenantza aplikatu ostean, bidezkoa litzatekeen dirulaguntza ere.
4. Behin-behineko ebazpen-proposamena eman ondoren, Kulturako Informazio Batzordeak dagokion behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio organo emaileari. Proposamen hori bat etor daiteke aipatutako Ataleko Burutzak emandako txostenarekin, edo ez, baina, nolanahi ere, arrazoituta egon beharko du, eta dagokion deialdian laguntzak emateko ezarritako baldintza eta irizpideekin bat etorri beharko du.
5. Kide anitzeko organo horrek emandako behin betiko ebazpen-proposamena ikusita, organo eskudunak prozedura ebatziko du, eta behin betiko ebazpen-proposamenaren ildo beretik ebatzi ahal izango du, edo proposamenetik aldenduz; hala ere, kasu horretan, arrazoiak eman beharko ditu, eta ebazpena justifikatu deialdi honetan eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan ezarritako irizpideak aplikatuz.
6. Prozedura ebaztean eskatzaile bakoitzari emandako dirulaguntzak eta baldintzak (hala nola, diruz lagundutako jarduerak, dirulaguntzaren gehieneko ehunekoak eta zenbatekoa, jarduerak egikaritzeko eta justifikatzeko epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, etab.) adieraziko dira, ezetsitako eskaerekin eta atzera egintzat jotakoekin batera. Azkeneko bi kasuetan, erabakiak arrazoitu egingo dira.
7. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, ebazpen horren aurka jar daitezkeen errekurtsuak adierazita.
8. Erakunde onuradunek emandako dirulaguntzak onartu dituztela ulertuko da, baldin eta hamar egun balioduneko epean, dirulaguntzak emateko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, Sestaoko Udalari dirulaguntzari uko egiten diotela idatziz jakinarazten ez badiote.

9. Dirulaguntza jaso duten erakundeek Sestaoko Udalaren berariazko baimena eskatu beharko dute dirulaguntza jaso duten proiektuetan hasieran aurrez ikusitakoekiko aldaketa adierazgarriak egiteko. Aldaketok dirulaguntza eman duen organoak erabakitakoaren mende egongo dira, eta hark onartu ahal izango ditu, baldin eta emandako dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatzen badira.

HAMAIKAGARREN OINARRIA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Dirulaguntzen onuradun diren pertsona edo erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Deialdi honetako arauak zehatz-mehatz betetzea, baita dirulaguntzak emateko udal-ebazpenean ager daitezkeen gainerako baldintzak ere.
- b) Emandako dirulaguntza bere helburura bideratzea.
- c) Diru-laguntzaren xede den jarduera garatzeko beharrezkoak diren baimenak, publikoak edo pribatuak, lortzea; diru-laguntza jaso duten jarduerak edo proiektuak antolatzeke eta egiteke edozein elementuri eragiten dion indarreko lege-araudia betetzea; beharrezkoak diren erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru-polizak sinatzea; eta, laburbilduz, diru-laguntza jaso duten jarduera edo proiektuak egitetik ondoriozta daitezkeen erantzukizun guztiak onartzea. Horri dagokionez, Sestaoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.
- d) Sestaoko Udalaren babesa adieraztea. Hala, dagokion arlo edo zerbitzua azalduko da diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak zabaldu, hedatu eta argitaratzeko erabiltzen diren bitarteko guztietan, idatzizkoetan eta ikus-entzunezkoetan. Hedabide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan agertu beharko dute, eta informazioa bi hizkuntzetan agertu beharko da, batera, aldi berean eta euskarri berean integratuta. Ez da onartuko hizkuntzaren arabera bereizitako bertsiorik, eta nahitaezkoa izango da informazioa bi hizkuntzetan aurkeztea, kartel, triptiko, liburuxka, iragarki edo hedapenerako beste edozein formatutan.
- e) Sestaoko Udalak egin behar dituen egiaztapen-jarduerak onartzea eta diruz lagundutako jarduera edo proiektuak direla-eta, eskatzen den informazio osagarria hari eskuratzea.
- f) Sestaoko Udalari jakinaraztea beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntzak edo laguntza ekonomikoak, Udal horrek diruz lagundutako jarduera berak egiteko lortu badira. Jakinarazpen hori beste dirulaguntza edo laguntza horren berri Jakin bezain laster egin beharko da, eta lortutako zenbatekoa eta erakunde emailea adieraziko ditu.
- g) Programatutako eta diruz lagundutako jarduerak osorik edo zati batean egiten ez badira, onuradunek kobratutako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko dute, hilabeteko epean, gauzatu gabeko jarduera egitea programatu zen egunetik zenbatzen hasita. Era berean, diruz lagundutako jarduerak egin ondoren egindako gastua diruz lagundutako zenbatekoa baino txikiagoa bada, onuradunek diruz lagundutako gastuan erabili ez den zenbatekoa itzuli beharko dute, jarduera itxi eta hilabeteko epean.

Hori guztia egin beharko da, kontuan izan gabe diruz lagundutako gastua justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko ezarritako epe orokorra.

HAMABIGARREN OINARRIA. JUSTIFIKAZIOA.

1. Diru-laguntzaren xede den jarduera edo proiektua amaitu ondoren, dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu erakunde onuradunak. **Justifikazio bat aurkeztu beharko da dirulaguntza jaso duen programa edo jarduera bakoitzeko.** Izapidea Sestaoko Udalak www.sestao.eus webgunean argitaratuta duen izapidearen bidez egingo da (<https://www.sestao.eus/eu-ES/Izapideak/>).
2. Justifikazio gisa aurkeztu behar den dokumentazioa (dokumentuak eskuragarri egongo dira www.sestao.eus webgunean, <https://www.sestao.eus/eu-ES/Izapideak/>) honako hau da:

- a) Egindako jardueren memoria zehatza, lortutako emaitzen ebaluazioarekin.
- b) Diru-sarreraren eta gastu ekonomikoen zerrenda, jatorria eta xedea zehaztuta, hurrenez hurren.
- c) Diruz lagundutako jarduera dela-eta izandako gastu guztien egiaztagiria. Frogagiri horiek fakturak edo froga-balio baliokidea duten beste dokumentu batzuk izan beharko dute, eta baliozkoak izan beharko dute merkataritzako trafiko juridikoan.
Justifikazioa kuxako tiket bidez egiten denean, baliozkoa izateko, faktura sinplifikaturako jasotzen diren zenbatekoa eta edukia onartzeko baldintzak bete beharko dira, Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- d) Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako azterlanen, programen, argitalpenen, iragarki-kartelen eta bestelako dokumentazio grafiko eta idatzi guztia-aren ale bana. Bertan, berariaz agertu beharko da dagokion Sestaoko Udaleko arlo edo zerbitzuak emandako babesa.
Dirulaguntza emateko erabakia jakinarazi ondoren zabaltzen diren jardueretan bakarrik jaso beharko da udal-babesa.

3. Frogagirik nahitaez bat etorri behar dute aurretiazko eskabidearen arabera dirulaguntza emateko arrazoi izan diren helburu eta jarduerak betetzearekin, eta ez dira justifikazio gisa onartuko beste helburu batzuk betetzeko egindako gastuak.

4. Gastuak egiaztatzeko dokumentazioa justifikazio gisa onartzeko, dirulaguntza eman den aldiko data eduki beharko da.

5. Pertsona edo erakunde onuradunak jarduerak azpikontratatu dituela egiaztatzen duten agiriak onartuko dira, deialdi honetan ezarritako gehieneko muga barruan.

6. Dirulaguntzari emandako erabileraren justifikazioa aurkezteko epeak dirulaguntzak emateko ebazpenean ezarriko dira, baina inola ere ez du gaitziztuko 2026ko urtarrilaren 15a.

Justifikazioa aurkeztu ezean edo ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, emandako dirulaguntza baliogabetuko da, eta pertsona edo erakunde onuradunak zenbateko osoa itzuli beharko du.

Aurkeztutako justifikazioa nahikoa ez dela iritziz gero, 10 egun naturaleko epea emango da antzemandako akatsak zuzentzeko.

Eskatutako zuzenketa egiten ez bada, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, behar bezala justifikatutako zenbatekoaren proportzioan. Horrek, kasuaren arabera, dirulaguntzaren zati bat ordaintzea edo itzultzea ekarriko du.

HAMAHIRUGARREN OINARRIA. DATUEN BABESA.

Tratamenduaren arduraduna.

Dirulaguntzen deialdi hau izapidetzean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Sestaoko Udala izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako manuak betez.

Tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren helburua da Sestaoko Udalak gizarte- eta kultura-, jai- eta aisialdi-esparruan egiten duen esku-hartzea osatu edo ordezkatzeko dituzten programa eta jarduerak bultzatu eta garatzea.

Tratamenduaren legitimazioa eta oinarri juridikoak

Datu pertsonalen tratamendua Udalari esleitutako botere publikoen egikaritzan oinarritzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua arabera.

Tratamenduaren oinarri juridikoa honako hauetan dago jasota: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan; Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean; eta Sestaoko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan.

Datu-bitartekaritza

Sestaoko Udalak, legez esleituta dituen eskumenak baliatuz, elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu beste administrazio batzuetatik datozen dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Nolanahi ere, Udalak egiaztapen- eta/edo kontrol-lanak egin ahal izango ditu, eta legez agindutako prozedurak izapidetzeko, kudeatzeko eta ebazteko beharrezkoa den edozein dokumentu eskuratu ahal izango du.

Publizitatea

Sestaoko Udalak, dirulaguntzaren deialdia onartu ondoren, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera (aurrerantzean, BDNS) bidaliko du oinarriari, programari eta aurrekontu-kredituari buruzko informazioa, bai eta horien xede edo helburuari buruzkoa ere. Ondoren, deialdia ebatzi ondoren, Udalak onuradunen zerrenda, emandako eta benetan jasotako zenbatekoa eta, hala badagokio, itzultze- eta zehapen-ebazpenak jakinaraziko ditu.

Edozein pertsona eta/edo administrazioak kontsultatu ahal izango du BDBNra igorritako informazioa, DLOren helburua gardentasuna eta iruzurraren aurkako borroka sustatzea baita.

Halaber, Udalak emandako dirulaguntzen eta/edo laguntzen zenbatekoari, helburuari edo xedeari eta onuradunei buruzko datu pertsonalak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen eta udalaren webgunean eta Sestaoko Udalaren Gardentasun Atarian (Sestao Zabaltzen) argitaratuko dira; hori guztia, DLOn, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) eta apirilaren 7ko 2/2016 Legean (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) jasotako legezko betebeharrekin bat etorritik.

Erabaki automatizatua.

Dirulaguntzen eskatzaileen datu pertsonalak ez dira automatikoki tratatuko; hala ere, Erregistro Sisteman, espedienteen kudeatzailean, Sestaoko Udaleko Kontabilitate Sisteman eta, beharrezkoa izanez gero, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikokoan sartuko dira. Horren helburua deitutako dirulaguntzak izapidetu eta kudeatzea baino ez da.

Datuen jatorria.

Datu pertsonalak interesdunak berak emango ditu. Hala ere, aurka egiten ez badu, udalak beste administrazio publiko batetik datozen dokumentuak eskuratu ahal izango ditu.

Datuen hartzaileak

Tratatutako datu pertsonalak BDNSri jakinaraziko zaizkio.

Datuen babesaren arloko eskubideak

Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubidea baliatu ahal izango du, baita tratamendu automatizatu batean soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko eskubidea ere, Sestaoko Udaleko Erregistro Orokorrean edo Elektronikokoan (Kasko Plaza S/N - 48.910 Sestao, <https://www.sestao.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-0237d32158c>) edo administrazio publikoen erregistro-gaietan laguntzeko bulegoen sarean.

Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba).

Tratatutako datu pertsonalen eremuak

Sestaoko Udalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako eskumenak garatuz eta deialdi honetan eskatzen diren baldintzak egiaztatzeko helburuarekin, honako datu-tarte hauek tratatuko ditu:

☒	Oinarrizko datuak: Izen-abizenak.
☒	Identifikazio-datuak: NAN/AIZ/IFK
☒	Auzotasun-datuak: Erroldatzea.
☒	Komunikazioetarako datuak: helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.
☒	Ordezkaritza-datuak: ahalorde-emailearen eta ahalordedunaren izen-abizenak, NAN/AIZ eta ordezkari-tza-ahalordea (notarioa, apud acta,...)
☒	Jardueraren datuak: Ogasun Publiko eskudunarekiko ordainketak egunean izatea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egunean egotea, Sestaoko Udalarekin egunean egotea, dirulaguntzak jasotzeko aukera kentzen dion ebazpen irmo baten bidez zehapenik jaso ez izana, dirulaguntzen onuradun izateko debekuaren kausan sartuta ez egotea, sexu-diskriminazioarengatik zehapen penal edo administratiborik ez izatea eta dirulaguntzen edo laguntzen deialdietan parte hartzeko debekuarekin zigortuta ez egotea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.
☒	Bankuko datuak: Banku-fitxa
☒	Hirugarrenaren datuak (jardueren arduraduna): Oinarrizko datuak: Izen-abizenak. Harremanetarako datuak: Telefonoa

KULTURA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA ETA KIROL ATALEKO BURUA